

Konta Kontari

# UDAZKENEKO BARAZKIAK ETA FRUTAK

LEHEN HEZKUNTZA



Udazkena irailaren azken egunetan hasi eta  
abenduarien azken egunetan  
bukutzen da.




Ez da uda bezain beroa ezta negua bezain hotza,  
beraz urtaro epela da. Hila hauetan, zuhaitzen  
hostoak kolorez aldatzen dira: marroak,  
laranjak, horiak eta gorriak dira nagusi.  
Eta uda bukatu bada ere, gure baratzeak ez dira  
erabat husten. Bertan hainbat barazki eta fruta  
aurki ditzakegu.




Baina, zein fruta eta barazki biltzen dira udazkenean?


# UDAZKENEKO BARAZKIAK



# BARATZEKO BARAZKIAK

Udazkeneko barazkiak marroi, laranja, hori eta zuri koloreak dira gehien bat. Urtaro honetako barazki ezagunena kuia da. Honekin batera, azenarioa (neguan ere biltzen bada, horiek negutegikoak izaten dira), berenjena, baratxuria, boniatoa (patata antzekoa dena, baina pixkat gozoagoa) eta naboa.







Bestalde, patata eta artoa.  
Eguzkiloa udako lorea bada ere,  
bere haziak lehortzen uzten  
badituzu, udazkenaren lehen egunak  
hauek biltzeko prest daude.

Lekale batzuk biltzeko momentu hona da ere,  
horien artean, dilistak eta garbantzuak.



# MENDIKO BARAZKIAK

Azkenik, onddoak eta perretxikoak. Ez da erreza mendian hauek aurkitzea, baina egitekotan benetan merezi izan du paseotxoa, ez duzu uste?



# UDAZKENEKO FRUTAK



Negua heldu baino lehen eta zuhaitzek hostoak guztiz galdu aurretik, zuhaitzetan udaberrian jaiotako eta udan hazitako fruituak biltzeko prest daude. Horien artean, fruitu lehorrak deritzonak.



Baina zer dira fruitu lehorrak?




# FRUITU LEHORRAK

Zuhatzen haziak dira. Gehienetan oskola gogorrak dituztenak, batzuek arantzaz estalita. Eta beste frutuekin konparatuta ur gutxi dute, horregatik lehortzen jartzen dira eta horrela neguan jan daitezke usteldu gabe.

Horien artean ezagunak dira Euskal Herrian gaztaina, intxaurrea eta hurra.



Badira ere beste fruitu lehor batzuk:  
almendra edo kakahuete, adibidez. Eta azkenik,  
ezkurrak, haritzetik jaiok, basurdeen  
gogokoena.




# BESTE FRUTAK



Udazkenaren lehen egunak



mugurdiak biltzeko garaia izan daiteke oraindik.

Modu berdinean, pikua. Granada (hemen ematen ez bada, erreza da dendetan halakoak aurkitzea oraindik udazkenaren hasieran).







Eta udazkena aurrera doala,  
irasagarra, mahatasak eta kiwia, azken bi  
hauek neguaren lehen asteetan garaian  
badira ere.



Badira fruta batzuk, bai udaberrian, udan,  
udazkenean eta neguan dendetan auki  
ditzakenuanak. Eta hauek dira: banana (platanoa  
ere deritzona), sagarra eta udarea. Udazkena  
da fruta hauek jateko garai aproposa.






# FRUTA TROPIKALAK



# FRUTA TROPIKALAK




**Anana:** beste lurraldeetatik etorritakoa, gozo-gozoa dago udazkenean.



**Kakia:** bere izena japonieratik dator, laranja kolorekoa, zapore suabekoa eta pizkat gozoa du



**Karanbola:** izar-fruta ere deritzona, asiatik etorritakoa da, ale txikiek zapore garrantza omen dute, handiak aldiz gozoa.



**Kiwuanoa:** kanpotik arantzak ditu, barrutik berde eta horia da, bere zaporea kiwi eta bananaren artekoa dela diote, entsaladan hartzen denean luzokerraren antzekoa da, baina freskagarriagoa



**Mangoa:** anana bezala bere momentu hoberenean dago udazkenean, barrutik laranja da eta bere azala, berde-gorri eta laranja kolore artekoa da, bere zukua oso ona da ere



Azkenik, *Papaia*: nahiko fruta handia da, barruan hazi beltz handiak ditu, barnekoa laranja da, zapore finarekin, bere izena Mexikoko maya hizkuntzatik dator



Probatu duzu inoz huetako bat?

# AZKEN GALDERAK

Ikusi duzunez, gure baratzeak hainbat aukera eskaintzen dizkigu. Hainbeste barazki izanda, zer plater prestatuko zenuke zuk?

Ba al da asko gustatzen zaizun udazkeneko errezetarik?

Zein da zure udazkeneko frutarik gogokoena?

Ezagutu al duzu fruta berriren bat?

# Konta Kontari

NEGUKO BARAZKI ETA FRUTEN BIDEOA IKUSTEKO:



@kontakontari



<http://youtu.be/jqaz808S7g4>

IPUIN, JOLAS ETA HEZKUNTZA-BALIABIDE GEHIAGO:

[www.kontakontari.com](http://www.kontakontari.com)